



**2/2018 akta**

**OSATEK SA SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN AKTA, 2018KO EKAINAREN 21EKOA**

Presidenteak deituta, Administrazio Kontseilua osatu da, Lakua II eraikineko R1 aretoan, Donostia kaleko 1. zenbakian, 2018ko ekainaren 21eko 15:00etan. Bertaratuak eta gai-zerrenda honako hauek izan dira:

**BERTARATUAK:**

**PRESIDENTEA**

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna

**KIDEAK**

M<sup>a</sup> Jesús Mugica Anduaga andrea

Andoni Arcelay Salazar jauna

Lide Amilibia Bergaretxe andrea

Susana López Altuna andrea, idazkari lanetan

Alberto Alberdi eta Daniel Salazar kontseilukideek bertaratzetik ez zutela adierazi eta beraien botoa Administrazio Kontseiluko presidentearen esku utzi dute. Fernando Aguirre de Miguelek ere bertaratzetik ez zuela adierazi du.

Osatek SAko zuzendari kudeatzaile Josu Xabier Llano Hernaiz jauna ere bileran izan da, hitza hartzeko eskubidearekin baina ez botoa ematekoa.

**GAI-ZERRENDA:**

1. Aurreko bilerako akta onartzea, bidezkoa bada.
2. 2018ko urtarril-maiatzeko asistentzia-jarduera.
3. Hizkuntza-eskakizunak eta Euskara Plana aurkeztu eta onartzea.
4. 2018an EM makina berriak instalatzea
5. Galderak eta eskaerak.

Osatekeko zuzendari kudeatzaile Josu Xabier Llano jaunak hartu du hitza, gai-zerrendari heltzeko:

**1. Aurreko bilerako akta onartzea, bidezkoa bada.**

Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da.



## 2. 2018ko urtarril-maiatzeko asistentzia-jarduera

### Irudi bidezko diagnostikoa

Epe horretan, guztira 48.241 paziente artatu dira; hau da, % 7,77ko igoera izan da 2017. urteko epe beraren aldean.

Erresonantzia magnetiko bidez, 64.432 miaketa egin dira; hau da, % 9,86ko igoera izan da 2016. urtearen aldean.

Jarduera handitzeari aurre egiteko, epe horretan 3.602 lan-txanda egin dira; hau da, 2017. urteko epe berean baino % 10,66 gehiago.

Itxaron-zerrendari dagokionez, orain 17.400 kontsulta-orri daude itxaron-zerrendan. Horrek esan nahi du zerrenda % 14,96 txikitu dela, 2017. urteko epe beraren aldean. Araban eta Bizkaian, batez besteko itxaronaldia murriztu egin da, ez ordea Gipuzkoan; azken horretan, pixka bat luzatu da, nahiz eta jarduera areagotu den.

### Telelaguntza Zerbitzuaren jarduera

48.431 pertsonari eman zaie zerbitzua. Hala, 65 urtetik gorako pertsonen % 10,92ri lagundu zaie. 85 urtetik gorako emakumeak populazio horretako kideen % 46,57 dira.

Lide Amilibia andreak Telelaguntza Zerbitzuko kontratazio berriaren egoera azaldu du, zerbitzu-emateari berari dagokionez. Horrez gain azaldu duenez, Osatekek Telelaguntza Zerbitzurako laguntza teknikoko zereginetan parte hartzen jarraitzea nahi du Sailak. Era berean, Lan eta Gizarte Politika Sailak mandatu berri bat idazteko lanak bide onean doazela aipatu du. Mandatu hori Kontseiluari aurkeztuko zaio, azter eta eztabaida dezan.

## 3. Hizkuntza-eskakizunak eta Euskara Plana aurkeztu eta onartzea

Kudeatzaileak Osatek SAko lanpostuei hizkuntza-eskakizunak eta horiek nahitaez betetzeko epeak esleitzeko erabaki-proposamen berri bat aurkeztu du. Administrazio Kontseiluaren aurreko bileran proposatutako aldaketa batzuk barne hartzen ditu proposamenak. Edukia aztertu eta eztabaidatu ondoren, aipatutako erabakia onartu, eta OSATEK SAko iragarki-taulan argitaratuko dela adierazi da.



#### 4. Erresonantzia magnetikoko makina berriak instalatzea.

Kudeatzaileak EM ekipo berriak instalatzeko proiektuen gaur egungo egoera azaldu du.

Eibarren zabalduko den ospitalean eta Donostia ospitalean kokatutako Osatek zentroan EM ekipo berriak instalatzeko lizitazio-prozedurak hasi dira. Bi prozedura horiek modu paraleloan egingo dira. Behin-behineko adjudikazioa abuztuko bigarren astean egingo dela aurreikusi da eta kontratuak iraileko lehenengo astean sinatuko direla.

San Eloy ospitalean EM ekipo bat instalatzeari dagokionez, kudeatzaileak jakinarazi duenez, EMA kokatuko litzatekeen eraikina egiteko lanak atzeratu egin dira, eta, beraz, ezinezkoa da 2018an instalatzea.

San Eloykoaren alternatiba gisa, 2018an hirugarren ekipo bat instalatzeko, kudeatzaileak hiru kokapen posibleren baldintza teknikoak azaldu ditu: Urdulizeko Alberto Espinosa ospitalekoak, Deustuko anbulatoriokoak eta ekipoa instalatzeko lokal pribatu bat alokatzearenak.


Azken aukera hori baztertu ondoren, Kontseiluak kudeatzaileari Deustuko anbulatorioan EM ekipo bat instalatzeko beharrezkoak diren azterketa eta lan teknikoak abiatzeko baimena eman dio.

#### 5. Galderak eta eskaerak.

Aurreko bileran eskatutakoarekin lotuta, kudeatzaileak jakinarazi duenez, Osateken lan-kargei eta antolakuntzaren arloko hobekuntzei buruzko azterketa bat egiteko lanak jada abiatu dira.

Gai gehiagorik egon ez denez gero, 16:50ean, bilera amaitutzat eman da hurrengo deialdira arte.

  
IDAZKARIA  
Sin.: Susana López Altuna

  
PRESIDENTEA  
Sin.: Ignacio J. Berraondo Zabalegui